

Prentsa-oharra

Bureau Veritasek IK4-TEKNIKERen industria-lubrifikazio unitatea eskuratu du

- ▶▶ *Multinazional frantsesak Eibarren mantenduko du industria-olioen analisirako bere dibisio globalaren egoitza europarra*
- ▶▶ *Negozioak, orain arte, Lubrication Management markarekin funtzionatzen zuen, eta 26 langile ditu*
- ▶▶ *Bureau Veritasek eta IK4-TEKNIKERek aliantza estrategiko bati ekin diote, lubrifikatzailearen analisiaren bidezko mantentze-lan prediktiboaren esparruan I+G arloan lan egiteko.*

(Eibar, 2018ko urtarrilaren 8a).-Bureau Veritas multinazional frantsesak IK4-TEKNIKERen industria-lubrifikazioko negozio-unitatea eskuratu du. Eibarko zentro teknologikoaren instalazioetan joan den astean sinatutako akordioak barnean hartzen du hemendik aurrera Bureau Veritasen industria-olioen analisirako dibisio globalaren egoitza europarra izango dena Euskadin mantentzeko konpromisoa.

Negozioak, orain arte, **Lubrication Management** markarekin funtzionatzen zuen, 26 langile ditu, eta European ongien ekipatutako laborategietako bat ei da. IK4-TEKNIKERen jatorria duela 37 urte Eibarko Armagintza Eskolan kokatzen da, eta lubrifikazioaren kudeaketa integralaren eremuan eskaintzen dituen zerbitzu teknologiko aurreratuak zentroaren kudeaketan bertan ikusten dira. Are gehiago, gaur egun, honako zerbitzu hauek ditu: olio lubrifikatzaileen analisia, aholkularitza lubrifikazioaren kudeaketa orokorrean, hutsegiteen arrazoiaren diagnostikoa, eta prestakuntza espezializatua lubrifikazioaren kudeaketan.

Olioaren eta ekipoaren egoera ezagutzea gero eta garrantzitsuagoa da industria-eremuetan, hain zuzen ere lubrifikazio oker baten ondorioz gerta daitezkeen akatsak modu proaktiboan prebenitzeko, eta erabileran dagoen lubrifikatzailearen analisiaren bitartez ekipoen egoera diagnostikatzeko. IK4-TEKNIKERek esparru horretan azken urteotan garatu duen jakintzari

(know-how) esker, sektoreko laborategi liderren artean kokatu da Lubrication Management marka Europa mailan.

Teknologia horrek nazioarteko ezarpena behar du jada hazten jarraitu ahal izateko, eta, beraz, orain, Bureau Veritasek, entsegu-, ikuskapen- eta ziurtatze-zerbitzuetako mundu-mailako liderra izanik, bere presentzia globala baliatuko du bere zerbitzuei bultzada emateko. IK4-TEKNIKERek haize-turbinetako olioien, transformadoreetako olioien eta koipeen analisirako garatu duen esperientzia eta teknologiak ezinbesteko osagarriak dira Bureau Veritasek olioien monitorizatzean lortu duen esperientziarako.

Operazioa izugarri ona izango da IK4-TEKNIKERentzat, hain zuzen ere, atzerriko inbertsioa Euskadira ekartzeaz gain, erabakiak hartzeko zentroa, lanpostuak, ekipamendu teknologikoa eta nazioartekotzeko asmo argia duen negozio bat Eibarren mantentzea lortu delako. Hortaz, arrakastaz beteriko bidea bermatu du; urteetan zehar ezagutza espezializatua lortu du; eta merkatuarekin etengabe kontaktuan egoteari esker, horrelako operazio bat burutu ahal izan du.

Izan ere, bi erakundeen arteko akordioa Lubrication Management eskuratzetik haratago joango da, hain zuzen ere Bureau Veritasek eta IK4-TEKNIKERek aliantza estrategiko bat hasteko asmoa baitute, lubrifikatzaileen analisiaren bidezko garapenean eta ikerketan oinarrituta.

"Bureau Veritasen gura da 2020an olioaren egoeraren monitorizatze-prozesuko mundu-mailako lider izendatua izatea. Lubrication Management erakundea eskuratzeko oso operazio garrantzitsua izan da hazkunde-prozesuan dagoen gure ekimen horren ezarpenean", adierazi du Bureau Veritaseko zuzendari exekutibo Didier Michaud Danielek.

“Munduko liderra 2020an”

“Bezereen operazio-errendimendua balio erantsiko eta datu-kudeaketako zerbitzuen bitartez areagotzera bideratutako aliantzen aldeko apustua egin nahi dugu, eta erosketa-operazio hau apustu horren baitan kokatzen da”, zehaztu du.

Lubrication Management erakundeko Zerbitzu Teknologikoen zuzendari Jesús Terradillosek ere oso balioespen positiboa eman dio operazioari: "Fase berria eta zirrargarria da Lubrication

Management erakundearentzat, hain zuzen ere bi erakundeok funtsezko hainbat balio partekatzen baititugu: kalitatea, zerbitzuko bikaintasuna eta esperientzia, besteak beste”.

“Hemendik aurrera, gure bezeroek jarraipena eta arreta-zerbitzu bikaina izango dituzte, kalitate handiaren, profesionaltasunaren eta integritatearen sinonimo den munduko konpainiarik onenetako baten babesarekin”, erantsi du.

Lubrication Management markari buruz

IK4-TEKNIKERen lubrikazio-kudeaketako unitateak nazioarteko ospea dauka industria-fluidoen eta olioien analisisan, informazioaren monitorizatzeko eta hartze-prozesuan, eta “condition monitoring” izeneko prozesuan, besteak beste.

Lubrikazioaren kudeaketak teknologia aurreratuak eta esperientzia batzen ditu mantentze-itzulera areagotzeko, aktiboen erabilgarritasuna handiagotuz, horien bizitza luzatuz eta eragiketaren kostuak murriztuz.

IK4-TEKNIKERen barruan egon den denboran, Lubrication Management erakundeak zerbitzu horiek eskaini dizkie hainbat geografia-esparrutako bezeroei, 35 urtez.

Bureau Veritas konpainiari buruz

Bureau Veritas laborategiko entsegu-, ikuskapen- eta ziurtapen-zerbitzuetako munduko erakunderik garrantzitsuenetako bat da. 1828an sortu zen, eta taldeak 74.000 enplegatu ditu, mundu osoko 1.400 bulego eta laborategitan banatuta.

Bureau Veritasek bere bezeroei laguntzen die betetze-maila hobetu dezaten, haien aktiboek, produktuek, azpiegiturak eta prozesuek kalitate-arloko, osasun- eta segurtasun-arloko, ingurumen-babesaren arloko eta gizarte-erantzukizunaren arloko estandarrak eta araudiak betetzen dituztela bermatzeko zerbitzuak eta soluzio berritzaileak eskainiz.

Bureau Veritas konpainiak Euronext Parisen kotizatzen du eta Next 20 indizeko kide da.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728

////////////////////////////////////